

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Onespena ematea 2024ko enplegu publikoaren eskaintzan sartutako eta barne sustapenerako gordetako mantentze lanetako ofizial plaza baten hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendari

Amurriko Udalak, 2026/201 Ebazpenaren bidez, onespena eman zion 2024ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintzan sartutako eta barne sustapenerako gordetako mantentze lanetako ofizial plaza baten hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendari. Hona hemen ebazpen hori hitzez hitz:

“Kontuan hartuta langileen teknikariaren txostenaren arabera hasitako espediente, Zerbitzu Orokorren eta Hirigintzaren Burutza honek, alkatearen 2024ko abenduaren 18ko 452/2024 Dekretuaren bidez emandako eskuordetzan oinarrituta (2024ko abenduaren 30eko ALHAOn argitaratu zen, 147. zenbakian), hau

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA. Onespena ematea onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrendari, 2024ko enplegu publikoaren eskaintzan sartutako plaza honetan:

Plazaren izena: mantentze lanetako ofiziala.

ONARTUTAKOAK

30681391N	LU. C. D.
-----------	-----------

BAZTERTUTAKOAK

30601717X	SE. O. A.	1
-----------	-----------	---

1. Ez ditu betetzen deialdian eskatutako baldintza espezifikoak.

BIGARRENA. Deialdiaren oinarri orokorretan eta espezifikoetan adierazitako betekizunei dagokienez, honako hau gogorarazi behar da: hautaketa prozesua gaingitu arren eta onarpen eskaeran adierazi arren betekizun guztiak betetzen direla, horiek egiaztatzeko unean dagokion moduan eta epean egiaztatzen ez badira, izangaia ezingo da karrerako funtzionario izendatu, eta ezingo du plazaren jabetza hartu edo sortutako lan poltsan sartu.

HIRUGARRENA. Ebazpen hau udalaren web orrian eta ALHAOn argitaratzea. Hamar egun baliodun izango dira erreklamazioak aurkezteko, zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera”.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Amurrio, 2026ko uztailaren 16a

Alkatea

JOSE RAMON MOLINUEVO LAÑA